

# **BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA**

## **BASKEPENSIONES BERMATUA AZAROA 2026 PLANA**

### **INBERTSIO-PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA**

#### **I. PRINTZIPIO OROKORRAK**

Inbertsioak aukeratzean, kontuan hartuko dira estatutuak, erregelamenduak eta indarrean dauden lege-xedapenak.

Baskepensiones BGAE Indibidualaren aktiboak inbertitzean, bazkide arrunten eta onuradunen interesari begiratuko zaio soil-soilik, eta inbertsioak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) merkatu antolatuetan egingo dira nagusiki.

Kualifikazio eta esperientzia profesional egokia duten pertsonak arduratuko dira inbertsioak kudeatzeaz.

Aktiboak irizpide jakin batzuekin inbertituko dira: segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, sakabanaketa, diru-kongruentzia eta epeak. Aktiboak behar adina dibertsifikatuko dira, aktibo baten, jaulkitzaile baten edo enpresa-talde baten gehiegizko mendekotasuna saihestuz, eta kontrako alderdiaren arriskua dibertsifikatzeko politika egoki bati jarraituz beti.

Baskepensiones BGAE Indibiduala bere inbertsioetatik eratortzen diren ondasun eta eskubideen titularra izango da, eta libre erabili ahal izango ditu.

#### **II. INBERTSIO-PROFILA**

Erakundea planetan banatuta dago. Plan bakoitzak bere inbertsio-profila du, Gobernu Batzarrak aldatu ahal izango duena.

**BASKEPENSIONES BERMATUA AZAROA 2026 Planak** dagozkion aktiboetan inbertituko du bere ondarea, honako hau bermatzeko helburuarekin: merkaturatze-aldian (2019ko apirilaren hasieratik 2019ko abuztuaren 8ra) gauzatuko diren bazkideen eskubide ekonomikoen % 100 itzultzea, baldin eta berme-aldiaren amaierara arte (2026ko azaroaren 2a) mantentzen badira, gehi Planak azkenean lortuko duen errentagarritasuna, zeina Eurosotoxx-50 burtsa-indizeak 2019ko abuztuaren 8tik 2026ko urriaren 29ra izango duen puntuz - puntuko bilakaeraren mende egon, eta berme-aldia amaitzean ordainduko dena. Planaren berme-aldia 2019ko abuztuaren 8an hasiko da eta 2026ko azaroaren 2an amaituko da.

#### **III. GIZARTE-IKUSPEGITIK ARDURATSUA DEN POLITIKA INBERTSIOAN**

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAK dio gizarte, ingurumen eta gobernu korporatiboaren arloetako jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen diela erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzera errendimenduak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAEk jardunbide horiek kontuan hartzea inbertsioak gauzatzeko orduan, bere bazkideentzako emaitzen kalitate handiagoa lortzeko.

BGAEren inbertsio arduratsuko irizpideak, oro har onartutako nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira, batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan. Testuinguru horretan, BGAEren nahia

da bere inbertsioaren xede diren erakundeek honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea beren jarduera-esparruetan:

- Giza Eskubideak errespetatzea
- Ingurumena zaintzea
- Gobernu onaren politikak egitea
- Gai fiskalean jardute ona

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du munduko erreferentziatzko funts handiek adostutako kanpo uzteak kontuan hartuta, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, eta betiere kontuan hartuz BGAEren irizpideek erreferentziatzko funts horien irizpideekin duten antzekotasuna edo bat-etortzea.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru-zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen bidezko inbertsioan, BGAEk modu kualitatiboan sartuko du gizartearen aurrean erantzulea den inbertsioaren erakunde kudeatzailearen politikari buruzko informazioa inbertsioa aztertzekeo prozesuan.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzekeo, BGAEk aldiro-aldiro aztertuko du inbertsio-zorroek lehen aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

#### **IV. INBERTSIORAKO EGOKIAK DIREN AKTIBOEN DESKRIBAPENA**

**Errenta Finkoko** inbertsioak bi modutara gauzatuko dira: zuzenean, jaulkipenen bidez, edo zeharka, IKEen bidez. Errenta Finkoko inbertsioak publikoak eta pribatuak izango dira, kaudimen handiko jaulkitzaileek jaulkiko dituzte, eta gehienak eurotan izendatuta egongo dira. Errenta Finkoko aktiboei dagokienez, aktiboak modu estrategikoan banatuko dira, era koherentean Erakundearen konpromisoen ezaugarrirei eta iraupenari dagokienez.

Gainera, Errenta Finkoko inbertsioen barnean, gordailuetan inbertitzeko asmoa dago, kreditu-erakundeetan, bai agerikoetan bai eperakoetan.

**Errenta Aldakorreko** inbertsioak IKEen akzio eta partaidetzatan gauzatuko dira. Errenta Aldakorreko inbertsioari ipinitako mugaren barnean, goranzko joera duen Errenta Aldakorrean inbertitu ahal izango da.

Erakundearen Gobernu Batzarraren baimenarekin, Errenta Aldakorrean eta Finkoan ez ezik, bestelako **Aktibo Alternatiboetan** ere inbertitu ahal izango da. Honako hauetan, bereziki: Hedge-Funds, Arrisku Kapitaleko Fondoak eta Higiezinaren Sektoreko Fondoak (beste aukera batzuk baztertu gabe).

Erakundeak lan egin ahal izango du eratorrien merkatu antolatuetan negoziatutako **finantza-tresna eratorriekin**, estaldura- eta inbertsio-helburuekin. Gainera, inbertitu ahal izango du eratorrien merkatu antolatuetan kontratatu gabeko finantza-tresna eratorrietan, estaldura-helburuarekin edo errentagarritasun-helburu zehatz bat lortzeko kudeaketa-esparru baten barnean. Azpiko aktiboei ez zaie mugarik jarriko, eta interes-tasen, kredituen, dibisen, errenta aldakorraren, egituren edo beste batzuen gainekoak izan daitezke.

Erakundearen zorroaren barnean, tresna eratorriekin gauzatu beharreko eragikeraren esleipena azpikoaren izaeraren arabera egingo da.

Eratortzean eta Tresna Egituratuarekin gauzatu beharreko Eragikerari buruzko Barne Eskuliburu bat dauka Erakundeak.

Bestetik, ez da baztertzen inbertitzea merkatu arautuetan **negoziaziorako onartu ez diren** Errenta Finkoko eta Errenta Aldakorreko baloreetan, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte: sozietate-egoitza ELGAko herrialde batean duten entitateek jaulkiak izatea; transmisio librea mugaturik ez izatea; beren finantza-egoerak auditatuak egotea; azkenik, inbertsioaren unean, azken erreferentzia-ekitaldiari dagokionez auditorearen oniritzia edukitzea.

Oro har, inbertsiorako egokitzat hartuko dira Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikulua zerrendatzen dituen aktibo guztiak.

Eratuko den zorroa honako hauek osatuko dute: EBko estatu kideek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Erakundeek, eta erakunde espainiarren hipoteka-zedulek jaulki edo abalaturako errenta finkoko tituluek eta likideziak; nolahi ere den, beste errenta finko pribatu batean % 25era arte inbertitzeko aukera baztertu gabe, diru-merkatuko gordailuak eta tresnak barne.

## **V. INBERTSIOEN ARRISKUAK**

Atal honetan aipatzen diren arriskuarentzat, Erakundeak prozedura bereziak ditu jarraipen egoki bat egin eta haien bilakaera kontrolatzeko. Kasu batzuetan, mugak jarriko zaizkie.

Erakundeak **Errenta Finkoko** aktiboetan inbertitzen du, eta horien balioa aldatu egiten da interes-tasen bilakaeraren arabera. Epe laburreko aktiboetan gertatzen den merkatu-prezioaren aldaketan sentikortasuna txikia da; epe luzean, handia. Erakundeak sentikortasun hori kuantifikatzen du, aldatutako iraupenaren kontzeptuaren bitartez.

Oro har, jaulkitzaile pribatuaren Errenta Finkoko Jaulkipenen kreditu-arriskua jaulkitzaile publikoenena baino handiagoa da, eta Errenta Finko pribatuko jaulkipenen gutxienezko kreditu-kalifikazioa mugatzen da, horrenbestez. Jaulkipen bat ez bada kalifikatua izan, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan.

**Errenta Aldakorrean** inbertitzean, inbertitu den merkatuen aldakortasunak eragina izan dezake Erakundearen errentagarritasunean, eta merkatu-arrisku handi bat du, hortaz.

**Inbertsio Alternatiboek** arrisku gehigarriak dituzte: hala nola gardentasunik eza prezioaren eraketan; likidezia-arriskua; merkatu-arrisku gehigarria, palanka-efektuagatik; araudi-arriskua; eragiketa-arriskua; balioespen-arriskua; eta iruzur-arriskua, aktiboen ebaspen aukeragatik, inbertsiorako erabiltzen diren IKEetako kontrol-sistemen ahuleziagatik. Aktiboekiko esposizioa mugatuz murrizten dira arrisku horiek.

**Tresna eratorrietan** eginiko inbertsioek eskura eginikoek ez dituzten beste arrisku batzuk dituzte, palanka-efektuagatik, eta bereziki sentikorrak dira azpikoaren prezio-aldaketekiko. Gainera, merkatu antolatuetan kontratatu ez diren tresna eratorrietan inbertitzeak beste arrisku batzuk ere baditu: esaterako, aurkako alderdiak kontratua ez betetzea, alderdien artean egongo den eta eragiketen emaitza bermatuko duen konpentsazio-ganberarik ez egoteagatik. Adierazi den bezala, Eratorrietan eta Tresna Egituratuarekin gauzatu beharreko Eragikerari buruzko Barne Eskuliburu bat du Erakundeak.

**Aktibo Ez-kotizatuetan** inbertitzeak likideziaz gabe utzi ditzake zenbait inbertsio. Aktiboaren balioaren zenbatespen-arrisku bat izan dezake, merkatuak ez duelako balio hori zuzenean zehazten. Aktibo hauekiko esposizioa mugatuta txikitzen da arrisku hori.

Azkenik, **euroa ez diren dibisetako aktiboetan** inbertitzeak ere arriskua dakar, truke-tasen gorabeherengatik. Arrisku hau txikitzeko, mugatu egiten dira euroa ez diren dibisetako aktiboetan eginiko inbertsioak.

## **VI. INBERTSIOEN ARRISKUAK NEURTZEKO METODOAK**

Indarrean dagoen arautegiak muga batzuk jartzen dizkie inbertsioei. Hala ere, kasu batzuetan, Baskepensiones BGAE Indibidualak muga zorrotzagoak jartzen dizkio bere buruari, hurrengo lerroetan aipatzen direnak.

### **Errenta Finkoa:**

Erakundeak aldi behingo jarraipena egingo dio Errenta Finkoko bere inbertsioen iraupenari. Dena dela, ez du mugarik jarriko parametro honetan, zeina dinamikoki ezarriko baita Planarentzat, talde kudeatzaileak merkatuei buruz duen ikuspegiaren arabera.

Errenta Finkoan eginiko inbertsioak aitortutako kaudimena duten aktiboetan zentratuko dira.

Inbertitzeko unean, jaulkitzaile pribatuen Errenta Finkoko inbertsioen % 95ek nazioarteko aitortpena duen agentzia batek gutxienez jaulkitako kreditu-kalifikazioa eduki beharko dute. Adibidez: Standard and Poors, Fitch, Moody's eta beste. Era berean, inbertsio-unean, ondarearen % 25era mugatuko da agentzia guztiek aldi berean emandako kreditu-kalifikazioa Espainiako Erresumarena baino hiru maila apalagoa duten jaulkipenetan eginiko inbertsioa. Jaulkipen bat ez bada kalifikatua izan, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan.

Erretan Finko publikoko aktiboetan eginiko inbertsioetan, ez da mugarik ezarriko Europar Batasuneko estatu kide batek, Autonomia Erkidego batek, Tokiko Erakunde batek edo Espainia kide den Nazioarteko Erakundeek jaulkitako edo abalaturako baloretan.

Azkenik, kontuan hartuko dira muga horiek OTC gordailu eta eratorriak kontratatzean, aintzat harturik aurkako alderdien kreditu-kalifikazioak. Hori dela-eta, eragiketa horietan, muga horiek erabiliko dira batera jaulkitzaileentzat eta aurkako alderdientzat.

### **Errenta Aldakorra:**

Erakundeak arrisku hau txikituko du, mugak ipinita Planaren Errenta Aldakorrarekiko esposizioari.

Errenta Aldakorreko inbertsioek ez dituzte gaitutako Planaren ondarearen gainean ezarritako mugak. Muga honetan, kontuan hartuko dira zuzeneko inbertsioak, zeharkakoak (hau da, IKEen bidez eginikoak) eta inbertsio alternatiboak.

Errenta Aldakorrari buruzko atalean, aintzat hartzen dira Goranzko joera duen Errenta Aldakorrean eginiko inbertsioak, eta ez dute gaitutako Planaren ondarearen % 5a. Muga honen barnean sartzen da Merkatu hauetan bakarrik inbertitzeko xedea duten IKEetan eginiko inbertsioa.

### **Inbertsio Alternatiboak:**

Kontratatzeke unean, Aktibo Alternatiboetan eginiko inbertsioek ez dute gaitutako Planaren ondarearen % 3a.

### **Tresna Eratorriak:**

Bi muga ezartzen zaizkio Errenta Aldakorrean aurreikusitako aktiboekiko esposizioari (tresna eratorrien bidez), esposizioaren zeinuaren arabera:

1. Zeinua negatiboa denean, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio garbia (hau da, kontuan hartuz eskura eginiko inbertsioa) ezin da posizio labur batetik sortu. Beste modu batean adierazita, tresna eratorriekin eginiko eragiketak ezin du gaitutu eskura eginiko inbertsioa.
2. Tresna eratorriekin eginiko eragiketak zeinu positiboa duenean, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio osoak (eskura eginiko inbertsioa batuz) ezin du gaitutu Errenta Aldakorrerako ezarritako ondarearen gaineko muga.

### **Aktibo Ez-kotizatuak:**

Aktibo ez-kotizatuak inbertsioak ez du gaitutako Planaren ondarearen % 20ko muga, edo unean uneko legediak finkatuko duena (txikiagoa balitz).

### **Euroa ez diren dibisetan izendatutako aktiboak:**

Euroa ez diren dibisetan izendatutako aktiboetako inbertsioak ez du gaindituko Planaren ondarearen % 30a.

Plan honen inbertsio-egitura diseinatzean, kontuan hartu da indarrean dagoen legedia, baita errentagarritasun-helburua ere. Arriskuen jarraipen hauek egingo dira:

Arrisku Mota	Neurketa-metodoa	Kontrol-prozedurak
Erakundearen globala	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ondarearen kuota-partearen balorazioaren aldakortasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aktiboen dibertsifikazioa</li> <li>Aktibo-motaren araberako mugak</li> <li>Aktiboen kalitate-eskakizunak</li> </ul>
Kreditu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errenta finkoko zorroaren batez besteko kreditu-kalifikazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jaulkitzaileak dibertsifikatzea</li> <li>Kreditu-kalifikazioaren eskakizuna</li> </ul>
Merkatu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Merkatu-indizeak kontuan hartuta (Ibex 35 eta Eurostxx 50), errenta aldakorrean eginiko inbertsioaren bilakaera konparatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Desbideratzeen analisiak, merkatu-indizeei dagokienez</li> <li>Errenta aldakorrean eginiko gehieneko inbertsio-ehunekoaren kudeaketa aktiboa</li> </ul>
Interes-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errenta finkoko zorroaren gainbalio edo azpi-balioaren bilakaera</li> <li>Errenta finkoko zorroaren sentikortasunaren eta iraupenaren analisia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Konparazioa interes-tasen kurben bilakaerarekin</li> <li>Spread edo kreditu-diferentzialen aldaketa garrantzitsuenen analisia</li> </ul>
Likidezia-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztutako hileko eta urteko fluxuak (mugarik gabe), hileroko eguneratu daitezkeenak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Estaldura gehigarria ondarearen % 2ko gutxienez sortutako beharretarako</li> </ul>
Truke-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euro-dibisa gurutzaketaren aldaketaren analisia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Estaldura-maila posibleak ezartzea, dibisa forward eragiketen bidez</li> </ul>
OTC eratorriak <ul style="list-style-type: none"> <li>Inbertsioa</li> <li>Estaldura</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ordezkatzen duen eskura eginiko inbertsio-mailaren hasierako definizioa</li> <li>Aurretik mugatzea espero den estaldura-eraginkortasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ezarritako mugaren eguneroko kontrola</li> <li>Eraginkortasunaren eta espero den korrelazioaren hileko neurketa</li> </ul>
Estaldurarako OTC ez diren eratorriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurretik mugatzea espero den eraginkortasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontrapartidaren balorazioaren eraginkortasun eta kontrastearen hileko neurketa</li> </ul>

Beste arrisku batzuk	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsioaren ezaugarriak, erregulazio-maila eta balorazio independentearen erabilgarritasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsioak dibertsifikatzea</li> <li>• Pisu murriztua</li> <li>• Jarraipen espezifikoa</li> </ul>
----------------------	---	---

Nolanahi ere den, aktiboa eskuratu ondoren izan daitezkeen rating-aldaketek ez dute haren salmenta zertan eragingo, merkatu-baldintzek hala egitea gomendatzen dutenean izan ezik.

## **VII. ARRISKUAK KONTROLATZEKO PROZEDURAK**

Aurreko atalean ezarritako mugen jarraipena eta kontrola egunero egingo da. Aktibo Alternatiboetarako eta Errenta Finkorako ezarritako mugak hileroko kontrolatuko dira.

Ezarritako mugaren bat gainditzen denean, lehenbailehen erregularizatuko du egoera Erakundeak, eta jakinaren gainean jarriko du erakundearen Presidentea, zeinak azalpenak emango baititu Gobernu Batzarraren hurrengo bilkuran, baldin eta desbideratzeak % 5 gainditzen badu Erakundearen muga. Hala eta guztiz ere, Gobernu Batzarrak uste badu muga-gainditzea merkatuaren egoera igarokor baten ondorio izan dela, partaideen onurarako, gainditzea baimendu lezake, egoerak iraun bitartean.

## **VIII. PLANAREN ARRISKU-MAILA**

BASKEPENSIONES BERMATUA AZAROA 2026 Planak, emandakoaren % 100aren itzultze-bermea eta bi burtsa-indizeen bilakaerari lotutako errentagarritasun-helburua betetzeko, inbertitu egingo du EBko estatu kideek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Erakundeek eta erakunde espainiarren Hipoteka-zedulek jaulki edo abalaturako zorrean eta batez ere likidezian, beste errenta finko pribatu batean % 25era arte inbertitzeko aukera baztertu gabe (diru-merkatuko gordailuak eta tresnak barne).

Kontuan izanik plan honek zer aktibotan inbertitzen duen eta berme-aldian zorroan irauteko duen asmoa, Planaren arrisku-maila txikitzat har daiteke.

## **IX. ESPERO DEN URTEKO ERRENTAGARRITASUN-HELBURUA**

BASKEPENSIONES BERMATUA AZAROA 2026 Planak Kutxabank SAREN bermea du bermearen azken datan (2026-11-2) beharrezkoak diren zenbatekoak osatzeko, eta merkaturatze-aldian Planari ekarpenak egin dizkieten bazkideek (2019ko apirilaren hasieratik 2019ko abuztuaren 8ra) beren ekarpenen zenbatekoaren % 100 jasoko dute, Planean azkenean jasoko duten errentagarritasunaz gain.

Planaren bazkideek lortutako amaierako errentagarritasuna, berme-aldiaren amaieran ordainduko dena, puntuz puntuko Eurostoxx-50 indizearen balio handitzearen %100, hasierako erreferentzia 2019ko abuztuaren 8 eta amaierako erreferentzia 2026ko urriaren 29a izanik.

Planaren berme aldia 2019ko abuztuaren 8an hasiko da eta 2026ko azaroaren 2an amaitu.

Planaren errentagarritasuna mugaegunean:

Max ((0 ; min [ (Amaierako behaketa/Hasierako behaketa - %100) ; % 12 ]))

Non:

- Hasierako behaketa: Eurostoxx-50 indizearen itxiera-balioa 2019/08/8an
- Amaierako behaketa: Eurostoxx-50 indizearen itxiera-balioa 2026/10/29an

Beraz:

Errentagarritasun minimoa mugaegunean: % 0; (UTB % 0)

Errentagarritasun maximoa mugaegunean: % 12 ; (UTB % 1,58)

Errentagarritasun hori lortzeko, banaketa honen arabera inbertituko du planak bere ondarea:

- Likidezia..... 1,79%
- Estatuaren zorra % 1,3 2026/10/31 34,36%
- Strip Zorra mugaegun: 2026/10/31..... 60,70%
- OTC eratorria A ERAKUDEA ..... 1,95%
- OTC eratorria B ERAKUDEA ..... 1,20%

Aurretik aipatutako eratorriak ezaugarri hauek izango ditu:

- Eratorri mota: OPCION CALLSPREAD 100-112
- Azpikoa: Eurostoxx-50